

**INDARKERIA  
MATXISTARI  
ERANTZUTEKO  
SALAKETA  
PUBLIKORAKO  
PROTOKOLOA**

**ATAUNGO BERDINTASUN BATZORDEA**

---

# AURKIBIDEA

- Sarrera
- Esparru terminologikoa
- Estenategi posibleak: erantzun posibleak
- Jarraipen egitura

# Sarrera

Dokumentu honetan jasotzen dugu Ataungo Berdintasun Batzordean landu dugun Indarkeria Matxistari erantzuteko salaketa publikorako protokoloa.

Eragile ezberdinen lankidetzari esker sortu da dokumentua: Biboletak, Torto Gazte Asanblada eta Ataun Irratia. Mila esker egin dizuen ekarpenagatik

# \*Esparru terminologikoa

---

Ikusi

“Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria” eta “Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Gipuzkoako 2/2015 Foru Araua”-ren 51. artikulua

## INDARKERIA MATXISTA

Indarkeria matxista izango dira sexu / genero / sexualitate sistemaren heteronormaltasunari aurre egiten dioten gorputzen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinbolikoak, hala nola, transgreditu gabe ere, bere baitan botere-harremanak jasaten dituzten emakumeen gorpuen kontrakoak ere bai. Bi kasuetan haurtzarotik adierazten dira eta bizitza osoan zehar mantentzen dira. Kontzeptu honen baitan indarkeria-mota guztiak egongo dira: indarkeria matxista da indarkeria sexista, baina baita beste indarkeria mota batzuk ere, hala nola, transfobia, lesbofobia eta homofobia.

# \*Esparru terminologikoa

---

## INDARKERIA SEXISTA EDOTA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA

Sexu-genero sisteman emakume gisa sozializatutako gorputzek jasaten duten indarkeria da eta emakume izate hutsagatik jasaten dute; helburua nahiz ondorioa emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna betikotzea da.

Indarkeria-mota honek emakumeen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinboliko mota guztiak biltzen ditu, eta horiek identitate pertsonala osatzen duten beste faktore batzuekin nahasten dira, hala nola, adina, nazionalitatea, jatorria, osasun fisiko eta mentala, funtzionalitatea eta abar.



# \*Esparru terminologikoa

## GENERO INDARKERIA

Termino hau indarkeria sexista bikotekideak edo bikotekide ohiak egiten duenean erabiltzen da.

## SEXU-INDARKERIA

Pertsona bat, indarrez eta bere borondatearen kontra, sexu-intimitatea edukitzera behartzen duten ekintzak dira.

# \*Esparru terminologikoa

---

## FAMILIA BARRUKO INDARKERIA SEXISTA

Izendapen hau erabiliko dugu neskatok, nerabeek eta adin guztietako emakumeek beren familiako kideen aldetik (aita, anaia, osaba, aitona, etab.) jasaten dituzten kontrol-, eraso-, gaitzespen- eta bazterketa-forma oro adierazteko

# \*Esparru terminologikoa

---

## BESTE INDARKERIA MATXISTA MOTA BATZUK

### Transfobia

Gorputz intersexual, transexual eta transgeneroekiko gorroto eta bazterketa izendatzeko erabiltzen da.

### Lesbofobia

Beste emakume batzuekin harreman afektiboak eta sexualak dituzten emakumeekiko gorrotoa eta bazterketa izendatzeko erabiltzen da.

### Homofobia


Beste gizon batzuekin harreman afektiboak eta sexualak dituzten gizonekiko gorrotoa eta bazterketa izendatzeko erabiltzen da.

### Intragenaro-indarkeria

Sexu edo genero bereko pertsonen arteko harreman afektiboen eta sexualen baitan gertatzen diren indarkeria-kasuak dira.



**ESTENATEGI  
POSIBLEAK.**



**ERANTZUN POSIBLEAK.**

**EUSKAL HERRIAN  
INDARKERIA  
MATXISTAREN  
ERAGINEZ EMATEN  
DIREN ERAILKETAK**

—



Euskal Herrian (7 probintziek osatua) indarkeria Matxistaren ondorioz ematen diren erailketen kasuan, ondorengoa izango da prozedimendua:

1. Biboletak Berdintasun Batzordea deituko dute.
2. Batzordean konzentrazioa deituko da eta adierazpena osatu.
3. Auzo bakoitzean kokatuko den "kontadorean" biktima kopurua erregistratuko da.



# ESKUALDEAN (GOIERRIN) EMATEN DIREN INDARKERIA MATXISTA KASUEN AURREAN

—



Goierriin ematen diren Indarkeria Matxista kasuen aurrean ondorengoa izango da prozedimendua:

1. Herri bakoitzetik datozen inizatibak babestuko dira eta hauetan parte hartzeko deialdia luzatuko diete herritarrei Biboletak eta Berdintasun Batzordeak.





**ATAUNEN EMATEN  
DIREN INDARKERIA  
MATXISTA KASUAN  
AURREAN**

**—**

## KASU "LARRIAK"

Adierazpen “larriko” kasuak honako hauek izango dira: Ataunen gertatutako, ataundar batek jasandako edo ataundar batek eragindako erailketa edo erailketa saiakera; genero-indarkeriaren jasaile den emakume baten seme-alabak hiltzea edo hiltzen saiatzea; sexu-erasoa eta erasoarekin batera gerta daitezkeen egoera astungarriak. Hala nola, bahiketa; kontzientzia-galera ekarri duten elementuak erabilita egindako eraso; erasotzailea edo erasotzaileak funtzionario publikoak, segurtasun-gorpuetako langileak edo udalerriko agente esanguratsuetako langileak izatea; eta erasotzaileak behin baino gehiagotan eraso egitea, biktimaren bikotekidea izan edo ez; eta hemen jaso ez diren eta etorkizunean eraso bat larriagotu dezaketen elementutzat jo daitezkeen bestelako inguruabarrak.

# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## ERASOA JASAN DUENAREN BORONDATEA

Erasoa jasan duen emakumearekin (pertsonarekin) zuzeneko harremana egiten saiatuko gara. Egoeraren aurren zer egin nahi duen galdetuko diogu. Ez dugu zalantzan jarriko esaten diguna, ez dugu epaituko. Espazio segurua eta diskrezioa bermatuko dizkiogu.

## INFORMAZIO BIDAGARRIA

Morboa eta gizarte-alarma saihesteko arduraz jokatu behar da, eta gertaerei buruzko informazioa kontrastatu eta egiaztatu egin behar da. Oinarri sendorik gabeko erantzunak ez dio mesede egiten indarkeriaren aurreko zero tolerantziaren kulturari, eta kaltegarria izan daiteke indarkeriaren jasailearentzat zein ustezko erasotzailearentzat.



# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## **KASUA BAIEZTATZEN BADA**

Goierriin genero indarkeria kasuei erantzunteko protokoloa aktibatuko da. (2015an sortua eta martxan dagoena) Arretarako baliabideak eta eragile ezberdinen arteko koordinazioa biltzen ditu protokoloak.

## **SALAKETA PUBLIKOARI DAGOKIONEZ**

Behin kasua baieztatua ekin diezaiokegu salaketa publikoaren gaiari.

### PROZEDIMENDUA:

1. Biboletak Berdintasun Batzordea deituko dute.
2. Batzordean konzentrazio deialdia eta adierazpena landuko dira.

# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## ADIERAZPENA(K) I

Adierazpen bat(zuk) egitea aurrikusten badugu, KONTUZ!

Gogoratu ondorengo gomendioak:

- Indarkeria matxista terminoa erabiltzea lehenetsiko dugu, eta argi utziko dugu Ataungo Herriak irmotasunez baztertzen dituela eraso matxista guztiak, eta indarkeriaren jasaileari arreta eta babesa emateko printzipioa aintzat hartuta jardungo duela beti.
- Erasoaren jatorria nabarmendu behar da indarkeria matxistak emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanetan du jatorria, eta arazoa egiturazkoa eta lehen mailakoa da. Indarkeria sexista emakume izate hutsagatik edozein emakumek sufritu dezake, eta konpontzeko arazoaren muinera jo beharra dago, heteropatriarkatua gaindituz.

# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## ADIERAZPENA(K) II

- Emakumezkoak indarkeria matxista jasateagatik errudun egiten dituen diskurtsoak baztertu egingo ditugu: janzkera, ordua, jarrera, erasotzailearekin izandako harremana, etab. Erasoaren erantzule bakarra erasotzailea da. Ez da egingo erasoak justifikatzen duen adierazpenik.
- Beldurra sustatzen duten eta emakumeen askatasuna mugatzea ekar dezaketen diskurtsoak ekidin egin behar ditugu, eta emakumeen ahalduntzearen aldeko aldarria egingo dugu.
- Erasotzaileari dagokionez, erasotzaile-profil zehatzik ez dagoela argi geratu behar da: pobreak edo aberatsak, lankideak edo nagusiak, hemen jaioak zein etorri berriak... kolektibo guztietan daude erasotzaileak. Beraz, ez dugu aipatuko indarkeriaren jasailearen edota erasotzailearen jatorria.

# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## ADIERAZPENA(K) III

- Halaber, indarkeria oso era ezberdinetan adierazten dela gogoraraziko da: ukituak; baimendu gabeko musuak; emakumeen gorputzen inguruko komentarioak eta begirada umiliagarriak; sexu-harremanak izateko presioa; komentario edo keinu homofoboak; bortxaketak; erailketak; etab.
- Emakumezkoak ez dira erantzule gisa agertuko salaketarik jarri ez dutelako. Beraz, ez dugu nabarmenduko biktimak salaketarik jarri ez izana, baldin eta bikotekideen edo bikotekide ohien testuinguruan egindako erasoak izan bada. Izan ere, alderdi hori azpimarratuz gero, indarkeria saihesteko bide bakarra salaketa jartzea dela esaten ariko ginateke, eta hori ez da egia.

# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## ADIERAZPENA(K) IV

Indarkeria matxistaren aurka Biboletak, Berdintasun Batzordeak eta Ataungo Udalak hartutako konpromisoaren eta egiten ari den lanaren berri emango dugu, eta adieraziko dugu oso garrantzitsua dela gizartearen inplikazioa indarkeria-kasuak prebenitzeko eta horiei erantzuteko. Horrela, herriko eragile sozialen eta mugimendu feministaren urteetako lana nabarmenduko dugu.

.



## KASU "ARINAK"

Askotarikoak izan daitezke Indarkeria Matxistaren adierazpide "arinak", denak jasotzea ezinezkoa den arren, besteak beste, ondorengoak lirateke: ukituak; baimendu gabeko musuak; emakumeen gorputzen inguruko komentarioak eta begirada umiliagarriak; sexu-harremanak izateko presioa; komentario edo keinu homofoboak/lesbofoak.

# KASU "ARINAK"

Kasu hauen aurrean, ondorengoa da prozedimendua:

1. Salaketa publikoa egingo da erasoja jasan duenaren borondatea hori denean edo erasoja publikoa izan denean.
2. Biboletak Berdintasun Batozordea deituko dute.
3. Batzordean konzentrazioko deialdia eta adierazpena landuko dira.
4. Erasoa jasan duenarekin harremanetan jarriko gara eta behar duen laguntza eskainiko diogu.
5. Erasotzailearekin ere harremanetan jartzeko saiakera egingo dugu eta bere jardura matxista landu eta zuzentzeko laguntza eskainiko diogu.

# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## ERASOA JASO DUENAREN BORONDATEA

Aurreko kasuetan aipatu moduan jardutea da gomendioa.

## INFORMAZIO BIDAGARRIA

Aurreko kasuetan aipatu moduan jardutea da gomendioa.



# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## KASUA BAIEZTATZEN BADA

Indarkeria kasu hauetan zailagoa izaten da "kasua baieztatzea", sarri ez baita froga fisikorik egoten (Osakidetzaren partea), ez egoeraren testigurik ez salaketa parterik (Ertzaintzan).

Dena den, aurrez aipatu dugun moduan, erasoja jasan duenak salaketa egin nahi badu deialdia egingo dugu, baita erasoja publikoa bada ere.

# \*Kontuan hartu beharrekoak

---

## ADIERAZPENA(K)

Adierazpenen bat egiten bada, aurreko kasuetan jardun dugun moduan jardutea izan da gomendioa

.

# JARRAIPEN EGITURA

Salaketa publikoaren subjeto nagusia Biboletak taldea izango da, Berdintasun Batzordearen Babesarekin.

Urtean behin, egingo da protokolo honen egokitasuna baloratzeko saioa. Dena den, beharrezkoa balitz, deialdi berezi bat egiteko aukera legoke.